

Jarduera ugari  
aurkeztu dituzte  
hil honetarako

Dantza, sendabelarrak, batuka  
eta gimnastika ikastaroak... ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-10-06 ▶ III. urtea ▶ 703. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Upelera: Tolosaldeko sagardoaren festa hastear

**ADUNA** ▶ Muxkil elkarteak izan da ekimenaren bultzatzailea; bihartik igandera egitarau zabala aukeran

**SAGARDOTEGIAK** ▶ Begiristain, Aburuza, Zabala, Sarasola, Otazu, Zalbide eta Isastegi izango dira ▶ 4

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

**Rekondo, Mujika eta Otaegi, finalean**

Bihar lehiatuko dira 3. Mailako Aizkora Txapelketan ▶ 7

### UGARTE ▶

**Ate joka dira Errosarioko Amaren jaiak**

Igandean, Ingurutxo eta Arratiako jota dantzatuko dituzte ▶ 5

### TOLOSA ▶

**Gorritiren organo musikaren omenez**

Bi disko aurkeztuko dituzte gaur Kultur Etxean ▶ 3



## Punta-puntako taldeak asteburuan Bonberenean

**TOLOSA** ▶ Ikasturte berriarekin batera itzuli dira berriro era guztietako ekintzat Bonberenea etxera. Asteotan motorrak berotzen ari dira, musikaz beteriko asteburua antolatu baitute. Maila handiko taldeak igoko dira, bihar eta etzi, Bonbereneako taula

gainera. Bihar, Kerobia (argazkian) eta Sei urte taldeek eskainiko dute zuzeneko emanaldia etxean, 22:30etik aurrera. Etzi, berriz, Zura eta Amodio ariko dira, ordu berean. Datozen asteburuetan ere egongo da zer entzunik eta zer eginik Bonberenean. HITZA ▶ 2

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Herri Biltokiari  
agurra bihar

Hemendik hilabete gutxira Herri Biltokia dagoen eraikina bota egingo dute.

Hau dela eta, Tolosako ezker abertzaleak agur moduan lunch batekin lagundurik ekitaldi xume bat egingo dugu

bertan. Bihar izango da, 20:00etan.

Herri Biltokia martxan jarri zenetik istorio asko eman dira bertan: batzuk onak, baita oso onak ere, eta, nola ez, beste batzuk latzak izan dira.

Jende ugari elkartu izan gara, ekimen ezberdinak antolatzeke, eztabaidatzeko, ezker eta abertzale ikuspegitik lane-

an aritzeko. Barrea, negar-malakoak, amorrazioa, ilusioa, emozioa, ametsak, beldurra, ausardia... hau guztia eta gehiago ezagutzen dute etxe horretako hormek.

Bertan oso jende ezberdina elkartu izan gara, anitza baita ezker abertzalea, baina guztiok norabide berean lanean, herriaren alde, gure hizkuntza-

ren alde, justiziaren alde. Bihar ezin izango dugu guztiok elkartu: batzuk heriotzak eramanak ditu, beste batzuk ziega ilunetan edo erbestean daude, baina guztiak izango ditugu gogoan.

Lerro hauen bidez, Herri Biltokia gutxi edo gehiago sentitzen duen oro ostiralean bertaratera gonbidatzen dugu. Po-

litikoki hain garai berezi eta garrantzitsua bizi dugun honetan suertatu da lekuz aldatu behar izatea, eta Herri Biltokian ezin izango bada ere, aurrerantzean ere lanean jarraituko dugulakoan gaude, Euskal Herriaren alde. Merezi duelako.

KARMELE ELIZARAN  
(TOLOSAKO BATASUNAREN  
IZENEAN) ▶ TOLOSA

## MUSIKA ▶

Musika protagonista nagusia  
Bonberenean, astebururako

Kerobia eta Sei urte, bihar, eta Zura eta Amodioa taldeen emanaldiek, etzi, osatuko dute egitaraua; 22:30etik aurrera eskainiko dituzte kontzertuak



Sei urte laukoteak bihar eskainiko du zuzeneko emanaldia Bonberenean. IBAN GORRITI

## NOELIA LATABURU

Asteburua gerturatzen doan heinean, Bonberenean ere motorrak berotzen ditu, musikaz beteriko astebururako. Oraingoan lau kontzertu hartuko ditu, bi bihar eta beste bi etzi. Bietan ere hitzordua 22:30ean izango da.

Kerobia eta Sei urte euskal taldeen txanda izango da lehenik eta behin biharkoan. Lehe-

nengo taldea Iruñean sortu zen, 2001eko abenduan. Mikel eta Xabi Suhar taldean aritu ziren horren aurretik. Talde honek bi maketa grabatu zituen —lehenengoarekin Euskadi Gaztea maketa lehiaketan laugarren postua erdietsi zuten—, baina ondoren banatzea erabaki zuten. Halabaina, bi lagunok musikaren munduan jarraitzeko grinari eutsi zioten eta proiektu berri honi ekin

zioten. Horretarako, German pianojole iaioarekin jarri ziren harremanetan. German hainbat taldean aritua zen ordurako: Acordes Prohibidos eta Vodoo (rock-a), Cuba Libre (jazz-latino) eta Root Down (jazz-funk), esaterako.

Beraiek «ekoiztutako» maketa bat aurkeztu ostean, kantu berriak idazteari ekin zioten, eta honekin batera baxujole baten beharra nabariagoa

bihurtu zen. Horrela, «hainbatetik» hitz egin ostean, Karlos hartu zuten, 2003ko urtarrilean. Karlos Mr Fylyn eta Zwole taldean izandakoa zen. «Laster harrapatu zuen taldearen kera eta ederki egokitu zen». Hamabi bat abesti eta zenbait bertsio prestatu zituzten zuzenerako, eta hala aritu ziren 2002-2003 kurtsoan. Haien estreinako kontzertua laukote gisa gurean egin zuten, Beoti-barren, 2003ko martxoan.

2004ko uztaila bitartean jotzen aritu ondoren, udan diskoaren grabazioa prestatzen iragan zuen taldeak. Hamar kantu eta 45 minutuko lehen disko hau «biziki landua dator merkatura», tartean luxuzko musikari —korda-laukotea eta tronpetak— eta kolaboratzaileak dituela —Leihotikan-eko Gorka Armendariz eta Berri Txarrak-eko Gorka Urbizu—.

Hauen ostean, berriz, Sei urte taldeak eskainiko du kontzertua. Euskal hiria oinarri hartuz mugak gainditzen dituen sonoritea lortzen saiatu da, *Ekiozu* diskoan, 1997. urtean sorturiko taldea. Euskarak

ematen dituen nortasunaz, munduko edozein txokotan egin zezakeen diska bat egiten saiatu dira, euren musika ahalik eta irekiena egiten. Taldeki-deen esanetan, «diskoaren izenburuak *Ekiozu* argi adierazten duen bezala, norberak dituen helburuei aurre egiteko deia ere egiten dugu».

## Larunbatean, beste bi

Larunbatean ere bi taldek bisitatuko dute Bonberenea, Zura eta Amodio, hain zuzen ere. Lehendabizikoek literatura eta musika uztartzen dituzte. «Azpimarratzeko moduko» osagai asko ditu Zurak. Batetik, Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Garcia Lorca poeten olerkiak daude, eta, bestetik, Nicolas Lequonaren irudi harrigarriak aipatu behar dira. Espainiako Gerra Zibilak erditik moztu baituzten hiru artista horien bizitza. Olerkiak musikatzeko eskarmentu handiko musikariak aritu dira, Xabi Strubell gitarratzailea —Dut taldean aritua— eta Martxel Mariskal —Beti Mugan—. Emaizta *Ilargi handi zuri zara* diska da.

Amodio-k, berriz, bere *Vol. II* diskoa aurkeztuko du. Javi Manterola konpositoreak eta instrumentistak eta Aurélien Rotureau progamatzaileak folk eta bluesaren eguneratze pertsonala, «edo pertsonalizatze garaikidea», proposatzen du bere estreinako diska honetan. Herri musikaren sustraiek elektro-akustikarekin bat egingo dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

HEZKUNTZA ▶

## Hirukideko guraso bilerak izango dira gaurkoan ere

Urtebeteko haurren eta LHko 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoek dituzte

I. ETXEBESTE

Hirukide ikastetxeko arduradunak ikasturte hasiera dela eta ikasleen gurasoekin ari dira biltzen egunotan, eta hiru bilera izango dira gaurkoan ere. Haurtzaindegian, urtebete duten haurren gurasoek Gainberrin dute hitzordua, 16:30ean. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleen gurasoak, berriz, 17:30ean bilduko dira Jesuitinetan, eta, leku berean, baina ordubete beranduago, izango dute batzarra Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen gurasoek; alegia, Jesuitinetan, 18:30ean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Iruia. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amarozk dispens.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitz): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

MUSIKA ▶

## Felipe Gorritiren organo musika omentzeko, bi disko aurkeztuko dituzte gaur arratsaldean Kultur Etxean

Organojoleak Tafallan eta Tolosan eman zituen garaietan idatzitako obrak biltzen dituzte biek

I. ETXEBESTE

Felipe Gorritiren organorako musikari omenaldi modukoa egiteko, bi disko aurkeztuko dituzte gaurkoan Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxean. Esteban Elizondok ikerketa lan garrantzitsua egin du aurretik, Nafarroako Huarte-Arakilen jaiotako autoreak urtetan egin zuen lana biltzeko helburuarekin. Eta, hala, Gorritiren musikari buruzko ezaugarriak jakin ahal izan ditu Elizondok. Artxibo mota guztietan egin omen ditu bilaketa lanak, eta

Felipe Gorritik Tafallan, lehenik, eta Tolosan ondoren, organojole gisa jardun zuen garaiak 25 obra aurkitu ditu.

«Felipe Gorritiren ezaugarriarik garrantzitsuen zera da: Espainian barrokotik erromantizismorako trantsizioa errepresentatzen duela organorako musikari dagokionean, eta, baita, orohar, erlijioari lotutako musikari dagokionean ere. Hori ez du beste konposatzaile bakar batek ere egin», adierazi du Esteban Elizondok: «Tafallan barroko erako musika idatzi zuen, herri hartan zuen or-

ganora moldatutakoa, hain zuzen ere. Geroago, Tolosan, erromantizismora egiten du salto, eta garai hartan organorako idatzitako obrek sari ugari irabazi zituen Parisen».

Esteban Elizondok, Aeolus etxeko produktore Christoph Frommenen laguntzarekin aurkeztuko ditu gaur bi diskoak. Lehenengoa, Iruñeko dominikoen konbentuan grabatutakoa, Tafallan egon zeneko musika barrokoari gorazarre egiteko da; bigarrenak, berriz, erromantiko estiloko obrak biltzen ditu, Tolosako Santa Maria

parrokiako Stoltz (Paris) organorako idatzitakoak; bertan grabatu dituzte bigarren diskoak obrak.

Disko horretan daude, halaber, soprano eta organoarentzat Felipe Gorritik idatzitako eta Parisen sariak irabazitako beste bi obra ere. Arantza Ezenarro da sopranoa. Nafarroako Principe de Viana erakundearen eta Tolosako Udalaren babesean, eta aurrez esandako elizen laguntzarekin, ekoitzi dituzte bi disko horiek. Kultur Etxeko areto nagusian aurkeztuko dituzte, 19:30ean.

ZESTA-PUNTA ▶

## Garaipenak eta porrotak izan dituzte Beotibar taldekoek

Elkarteen Arteko Zesta-Punta Txapelketan ari dira kadeteen eta nagusien mailan

IRATXE ETXEBESTE

Eskualdeko zesta-punta jokalariek maila bikaina ari dira erakusten Elkarteen Arteko Txapelketan, eta Kutxa saria ere deitzen dioten lehia aurrera doa. Besteak beste, Tolosako Santa Luzia pilotalekuan jokatu zuten joan den ostiral arratsaldean Beotibar 2 taldeko kadete mailakoek Donostiako Jai Alai 1 taldekoen aurka, eta 20-30 galdu zuten, halabeharrez. Txapelketa honetan jokatzeko duten lehen neurketa dute tolosarrek, eta, beraz, aurrerantzean ere izango dituzte aukera gehiago lehian aurrera egiteko. Izagirre eta Bildarratz ziren Beotibar 2 taldekoen ordezkari aritu zirenak.

Egun berean, nagusien mailako partida bat ere izan zen Santa Luzia pilotalekuan: Beotibar 3 taldekoen eta Gazteleku 1 taldekoen artekoa, hain zuzen ere —Orrantziak eta Mujikak ordezkatu zuten talde tolosarra—. Etxekoek ere galdu egin zuten, 29-35eko emaitzarekin. Beotibar 3 taldekoena 2. partida izan zen.

Lehena zen, ordea, nagusien mailan jarduten duten Beotibar 1 taldekoena, baina Tolosan ez, eta Andoaingo Arrate

pilotalekuan jardun zuten horiek, Gazteleku 3 taldekoen kontra; Trabanzosek eta Rezolak jardun zuten Beotibar 1 taldean, eta 22-35 irabazi zieten aurkariei.

Eskualdeko jokalariek parte hartzen zuten joan den asteburuko azken partidua larunbat arratsaldekoa izan zen. Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan aritu ziren nagusien mailan Beotibar 2 taldea ordezkatzeko eta Garmendia bikotea Zumaia 3 taldearen aurka, eta 35-25 galdu zuten tolosarrek azkenean.

Hurrengoak, asteburuan

Elkarteen Arteko Zesta-Punta Txapelketak aurrera darrai, eta datorren asteburuan izango dira hurrengo partidua, Gipuzkoako pilotaleku ezberdinetan. Bihar izango dira horietako hiru: Tolosako Santa Luzia pilotalekuan jardungo dute, esate baterako, nagusien mailan jokatzeko duten Beotibar 1 taldekoek, Donostiako Jai Alai 3 taldekoen aurka. Lehenengo partidua izango da hori, eta 19:30ean hasiko da. Bigarren partidurako ere nagusien mailako izango dira lehian: Beotibar 2 eta Zumaia 2 taldekoak

nor baino nor ariko dira. Trabanzosek eta Rezolak ordezkatu dute orduan nagusien mailako Beotibar 1 taldea, eta Artetxek eta Garmendiak, berriz, nagusien mailako Beotibar 2.

Ostiralean ere jardun behar dute kadeteen mailako Beotibar 2 taldekoek. Ez dira, baina, etxean ariko, eta Zumaia Odieta pilotalekura joan behar dute bertako Zumaia taldearen kontra aritzeko. 20:00etan hasiko da norgehiagoka, eta lehen partidua izango dela iragarri dute antolatzaileek. Kadeteen mailako Beotibar 2 bikotea Izagirrek eta Bildarratzek osatuko dute ostiralean ere.

Eta datorren asteburuko neurketekin amaitzeko, Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan jokatu dute igandearen Beotibarreko zesta-punta jokalariek. 11:00etatik aurrera dira partidua, eta kadeteen mailako Beotibar 1 taldekoek aurrez aurre izango dituzte Donostia Jai Alai 1 taldekoak lehenengo partiduan. Mujika eta Telleria izango dira, kasu horretan, Beotibar 1 taldea ordezkatu behar dute. Eta hirugarren partidurako nagusien mailako neurketa dago antolatuta. Izan

ere, Donostia Jai Alai 1 eta Beotibar 3 taldeko bikoteek gogor jardun behar dute elkarren aurka. Antolatzaileek aurreikusitakoaren arabera, 12:00ak aldera hasiko da hirugarren neurketa hori, eta Orrantzia eta Mujika izango dira nagusien mailako Beotibar 3 taldeak Elkarteen Arteko Zesta-Punta Txapelketan aurrera egin dezan lan egingo dutenak.

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

Gobernu Batzarra, 2005eko Irailaren 19an, Igaralde kalea, 23ko Helduentzako eskola Birgaitzeko Obrak egiteko Klausula Administrazioaren agiria onartu zuen.

1. Helburua.- Igaralde kalea, 23ko Helduentzako Eskola Birgaitzeko obrak
2. Lizitazioaren zenbatekoa, . 235.927,64 € (BEZA barne)
3. Lanak egiteko epea. 6 hilabete
4. Espedientea ikusteko. Copitec (Gudari kalea 8, behea); telefona: 943 65 40 28
- Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66
5. Behin-behineko fidantza.- 4.718,55 €.
6. Behin betiko fidantza.- adjudkazioa zenbatekoaren %4
7. Enpresa-sailkapena: J.C.Taldea c Katagoria
8. Eskaintzak egiteko tokia eta epea.- Tolosako Udaltzako Sarrera Enregistrazioan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2005eko azaroaren 2an eguerdiko ordu bata arte (13:00).

Tolosa, 2005eko urriaren 3an  
ALKATEA

## ANOETA ▶

**Bilera garrantzitsua Biltokian**

Alkartasuna Biltokiak bilera garrantzitsu bat izango du gaur eta, beraz, juntakideei eta tabernan bolondres aritzen direnei deia egiten diete azaltzeko. Hitzordua 17:30-ean izango da, eta jorratuko diren bi gaiak ondorengoak izango dira: tabernaren etorkizuna eta loteria banaketa.

## VILLABONA ▶

**200 faisán askatuko dituzte ehizatzeke**

Villabonako Loatzo tiro elkartek jakinarazi nahi die Tolosaldeko ehiztari guztiei hilaren 12an 200 faisán askatuko direla ehizatu ahal izateko Tolosaldeko mendietan.

## ZIZURKIL ▶

**Koadro erakusketa Atxulondon**

Atxulondo kultur etxean Luis Maria Nuñez, Agurtzane Nuñez eta Amaia Nunez margolarien koadro erakusketa izango da hilaren 23a arte. Asteunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da aukera erakusketa bisitatzeko.

## ADUNA ▶ GIZARTEA

# Bertako sagardoaren festa

Tolosaldeko Upelera sagardo festa antolatu dute bihar hasi eta iganderaino

## ERREDAKZIOA

Tolosaldea betidanik izan da sagardo kultura. Gipuzkoako beste zenbait lurraldeetan bezala, gure eskualdean, aspalditik daude sagarrondoak, eta hauekin batera agertu zitezailgun lehen aipaturiko zuku preziatua. Bertako baserriar askok etxean egiten zuten beren sagardo, eta garai batean etxe askok zuten beren dolare propioa. Sagardoak, edari bat izateaz gain, kultura edo bizitzeko era bat ere suposatzen du.

Gaur egun Euskal Herriko sagardogintza lurralde txiki batean kokatuta dagoela dirudi. Jende askok uste du edari hau Astigarraga edo Hernani inguruetakoa dela, eta gainontzeko tokietan ohitura berria dela. Egia da sagardotegi gehienak lurralde horretan daudela, baina honek ez die gainontzeko herri eta eskualdeei beren izaera baztertzen.

Aurreko argudioak direla medio, Upelera izeneko Tolosaldeko sagardo asteburua antolatzea otu zitzaizen Adunako Muxkil elkartekoei, «sagardoak eta Tolosaldeak, historian zehar izan duten eta gaur egun ere daukaten lotura adierazteko asmoz. Gure festa edo asteburu honetan, sagardoaz gain, Tolosaldeako beste berezitasun edo baliabideak ere agra-



Asteburuan sagardo dastatzeko aukera izango da Adunan. J. ASTIBIA

rian utzi nahi ditugu. Lurralde honek badiu bitxikeria ugari, eta hauek Euskal Herriko gainontzeko biztanleei erakustea aproposa eta egokia iruditzen zaigu. Lur hauetan sagardoarekiko dagoen kultura sustatzea espero dugu».

Egitasmoak bi helburu nagusi ditu, antolatzaileen esanetan: «Batetik, Tolosaldeak eskualde bezala duen garrantzia eta entzutea ahal den moduan handitzea, eta eskualde honetan sagardoak duen eta izan duen garrantziaz berri ematea». Beraz, bi inguru hauetan mugitzen diren enpresa eta erakundeak izan dituzte festaren laguntzaile nagusi: Tolosaldea Garatzen Tolosaldeko garapen agentzia, eskualdeko sagardotegiak, Adunako Udala, Tolomendi eta Eusko Jaureritza Turismo saila.

**Dolare sagardotegiak**

Tolosaldean hogeita bat sagardotegi daude, baina ekitaldirako Dolare ziarzagiria duten zazpi sagardotegiak bereizi dituzte: Abaltzisketatik Zalbide, Adunatik Aburuza eta Zabala, Asteasutik Sarasola, Leaburutik Otazu, Ikaztegietatik Begiristain eta Tolosatik Isastegi, hain zuzen ere.

Egitarau oparoa antolatu dute bihar hasi eta iganderarte iraungo duen festan. Aipatze-koak dira larunbatean egingo den antzerkia, Adunako zenbait herritarren eskutik. Bestalde, igandean sagardo dastatzeko aukera izango da, lehen aipatutako sagardotegien eskutik. Baina, dastatu ez ezik, festara joaten dena epaile gisa ariko da, bakoitzak emango baitio puntuazioa sagardoei. Horrela, probatzen duenak ez du jakingo zein sagardotegitako zukua hartzen ari den.

Kontzertu, bazkari eta herri kirol proba interesgarriak izango dira ere hiru egun horietan. Ekitaldi batzuentzako sarrera erostea beharrezkoa izango da. Aldez aurretik sarrera ziurtatu nahi duenarentzat ondorengo lekuetan aurkituko dituzte salgai: Andoainen, Irunberri eta Txitibar tabernetan; Adun, Uztartza aterpetxean eta Aburuza sagardotegian; Zizurkilen, Zentro eta Aurrera tabernetan; Villabonan, Iratzar eta Xiker tabernetan; Anoetan, Itzuli tabernetan; Tolosan, Raku eta Orbela tabernetan eta Biliñtx dendan; Ibarren, Atari tabernetan; Amezketan, Larraitz tabernetan; Beasainen, Arrano tabernetan; eta Ordizian, Herriko tabernetan.

## EGITARAUA ▶

**BIHAR**

**18:00.** Festaren hasiera. Txalapartarekin deialdia. Aurkezpena: bertsolariek 3 bertsotan abestuko dute asteburuko egitaraua.

**18:15.** Festaren hasierako suziria. Kalejira Loatzo musika eskolako ikasleekin. Txistulariak, trikitilariak, buruhandiak... Segidan, ume eta gazteboentzat merienda. Ondoren, Loatzoko ikasleen kontzertuak.

**22:30.** Dantza emanaldia: *Ostadarren Arkupean dantzan*.

**23:30.** Kontzertua, frontoian: Ipar Haizea eta Seneka.

**ETZI**

**12:00-14:00 eta 16:00-20:00.** Argazki erakusketa.

**17:00.** Antzepeña: *Sagardo egiten, aintzinako erara*. Sagardo eta pitarra dastatzeko emango da.

**19:30.** *Sagarrondotik sabelera* bideo emanaldiaren proiektzioa.

**20:30.** Herri afora (sarrerarekin). Ondorenean, J.M. Beltran eta Astiasaran anaia.

**24:00.** Kontzertua (sarrerarekin): Ipar Haizea, Brigada Kriminal, Sagarro, Sioux.

**URRIAK 9, IGANDEA**

Egun guztian zehar duftzainero, txistulari eta albokariak kalejiran.

**10:00-eguerdirarte.** Tolosaldeko produktuen azoka: artisauak, talogileak, postreak...

**11:00-14:00.** Argazki erakusketa.

**11:40.** Herriko abesbatzaren emanaldia.

**12:00.** Tolosaldeko sagardo dastaketa eta txapelketa irekia.

**14:00.** Bertso bazkaria Xebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin Aburuza Sagardotegian (sarrerarekin).

**16:00-20:00.** Argazki erakusketa

**18:00.** Herri kirolak (sarrerarekin). Aizkora lehia: J.M. Olasagasti eta U. Otaño, I. Azurmendiren eta J.M. Erasunen aurka. Harri jasozen: Aimar Irigoien erretildarraren marka puskatzeko ahalegina esku bakarrekin.

**Urr 7 ost**

www.sala31.com  
**LEKUNBERRI**

**BERRI TXARRAK**

**Irekiera 0:00etan**

**Aurretik 9 €**

**Lehiatilan 12 €**



UGARTE ▶ JAIK

# Uda bukatu bada ere, festak ate joka

Bihar iluntzean hasi eta igandera bitarte iraungo dute Ugarten Errosarioko Amaren omenezko jaiak

MARTA SAN SEBASTIAN

Udazken usainarekin iritsi dira aurten ere Amezketa Ugarte auzora Errosarioko Amaren jaiak. Bihar, ostirala, hasiko da festa giroa, eta igandera bitarte luzatuko dira ekitaldiak. Aurtengoan egitarau oparoa pres-tatu dute antolatzaileek, eta herriarrek ekintzetan parte har-zea espero dute.

Jaiak kanpai jotze tradizio-na- larekin eta suzirien jaurtikete-kin hasiko dira bihar, 20:30ean. Ondoren, herri afarirako gon- bita luzatu dute antolatzaileek. Sabelak ederki bete eta gero, erromeria izango da plazan, Xabierrekin. Atsedenaldi txikia egingo dute, eta toka lehiaketa- rako tartea zabalduko dute nahi duenak parte har dezan.

Larunbatak, aldiz, goizetik izango ditu hainbat ekitaldi go- zagari. Hasteko, umeek jolas dezaten, puzgarriak jarriko di- tuzte frontoian. Orduetgia hon- akoa izango da: 11:00etatik 13:00etara bitarte, eta arratsal- dez 16:00etatik 19:00etara. Puzgarriez gain, 16:30ean Ugarteko VII. Mus Txapelketa egingo dute, urtero partze- har- tze handia izaten duena. Musa gogoko ez duenak karrodun zaldian ibilalditxoak egiteko auk- era izango du. 18:00etan, al- diz, zaldi karrera izango da. Gau partea iristean, afarirako elkartuko dira herritarrek za- hagiardoan. Ondoren, 22:00- etan, Kupela taldearen doinue- kin alaituko da Ugarteko plaza. *Ikuskizun Bitxia* deitu dioten saioa izango da atsedendian.

Igandea izango da jaiak emango duten azken eguna. Usadioei jarraiki, 11:00etan



Mus txapelketak parte-hartze handia izaten du. I. TERRADILLOS

Meza Nagusia egingo da. On- doren, pilotari gaztetxoek par- tidak jokatuko dituzte: Amun- darainek eta Altunak Artolak eta Zabalak osatutako bikotea- ren aurka jokatu dute, eta Sagastume eta Iribarren Belo- kiren eta Egigurenen arerio izango dira. Partidez gozatu ondoren, hamaiketakoak eskai- niko dute eguerdi aldera pla- zan eta, bien bitartean, Inguru- txua dantzatu dute dantza- riek. Ohitura bilakatu da Errosarioko Amaren jaietan

dantza hau egitea, eta aurten ere ez dute ohitura hautsi nahi. Gainera, Arratiako jota ere es- kainiko dute. Bazkal aurretik Laja eta Landakanda bikoteak trikiti saioa eskainiko dute. He- rri Kirolei ere tartea egingo diote Ugarten: Arrospe eta Olasagasti aizkolariek eta Izeta harri-jasotzaileak erakustaldia egingo dute. Ondoren, sagardo dastaketarekin eztarria busti- tzeko parada izango da, eta Laja eta Landakandak auzoko festei amaiera emango diete.

ALTZO ▶

## Jubilatu egunerako izena emateko epea

Hilaren 16an, larunbata, Ju- bilatu Eguna egingo dute he- rrian. Prestatu dituzten eki- taldietan parte hartu nahi duenak urriaren 12a baino lehen udaletxera joan behar du izena ematera. Egitaraua- ren barnean, goizaldean Meza Nagusia izango da eta ondoren dantzariak, San Ina- zioetan jokatzeko geratu zen pilota partidua, eta baita ber- tsolari saioa ere. Azkenik, bazkaria ere egingo dute he- rriko Arandia jatetxean. Be- raz, ahal bezain laster eman behar da izena.

LITERATURA ▶

## Euskadi Literatura sarietan finalistak

Euskadi Literatura Sarien arduradunek Arantxa Iturbe alegiarraren *Bi ipotx gure etxeko sofan* liburua aukera- tu dute Haur eta Gazte Litera- tura saileko finalisten artean. Izendapen honez gain, Itzul- pengintza sailean Juan Kruz Igerabide adunarra finalis- ten artean kokatu dute, *Nire aitaren fusila* lanarekin. Hi- ner Saleem idazlearena da obra originala, eta aduna- rrak itzulpengintza lanak egin ditu. Azaroaren 22an ja- kingo da epaimahaiaren era- bakia.

ORENDAIN ▶ HIPIKA

## Garmendia hirugarren Espainiako Txapelketan

Orendainarrak Nando zaldi berriarekin lortu zuen brontzezko domina

M.S.S.

Jesus Garmendia zaldun orendainarrak hirugarren postua lortu du Marbellan (Espainia) jokatu berri den Espainiako Jauzi Txapelketan. Nando izenez bataiatu duen zaldiaren gainean eskuratu du brontzezko domina. Duela lau aste Bartzelonako (Katalu- nia) zalditegi batek fitxatu zuen orendainarra, eta ha- rrezkero dabil Nando zaldia- ren gainean txapelketetan.

Espainiako Txapelketan arerio gogorrak izan ditu Je- sus Garmendiak. Ricardo Ju- radok urrezko domina esku- ratu zuen eta bigarren postua, aldiz, Rafi Latham zalduna- rentzat izan zen. Irabazleez gain, beste hainbat zaldunek oso lasterketa ona egin zuten, hala nola, Cayetano Martinez

de Irujak edota Alvaro Muñoz Escasik.

Garmendiaren hitzetan, «nire talde osoaren helburua lehenengo hamar lehiakideen artean geratzeko zen eta, beraz, txapelketan brontzezko domi- na lortzea espero genuena baina postu askoz hobeago da, eta oso pozik gaude denak lortutako emaitzarekin».

Bere zaldi berriarekin ere oso gustura ibili zen lasterke- tan, «zaldiak lan bikaina egin zuen, baina oraindik ere sasoi pixka bat falta zaio, bigarren itzultzetan motelago ibiltzen baita. Hala ere, teknika oso ona du eta zaldi gogorra da, inongo dudarik gabe», adie- razi du zaldunak. Lehiakor ageri da orendainarra eta aurrerantzean ere berri on gehiago ematen jarraitzeko asmoz.

# GOIERRIKO HITZAREN 1. URTEURREN FESTA

URRIAREN 8AN BEASAINGO PLAZAN



16:30ean  
TXILIBUTXOfen  
Tailerra

19:00etan  
AURTZAKA DANTZA TALDEA  
eta  
ZUHAITZAREN SOINUA  
Txalaparta

BERTSOLARIAK

22:00etan  
HARTU ARTE  
Rock taldea

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera HITZAKO MATERIAL SALMENTA

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Aurrez  
aurreko bisitak

Senideekin aurrez aurrekoak hilabetean behin izaten ditugu. Espetxe bakoitzak bere funtzionamendua izaten duen bezala, ordutegia desberdina izaten da. Aurrez aurrekoak bi ordu edo ordu eta erdiokoak izaten dira. Aurrez aurreko hauek hilabete gure arnasa izaten dira, kontu ugari izaten ditugu elkar kontatzeko, eta denbora gutxiegi.

Aurrez aurrekoak izaten dugun egunean, oso urduri ego-

ten gara; senideek kilometro ugari egin behar izaten dituzte dispertsioaren eraginez, urduritasuna izaten dugu errepidean ezer ez gertatzeko, istripuak, heriotza izaten baititugu buruan.

Senideak espetxera iristen direnean identifikatuak izaten dira; batzuetan inguruan dauden guardia zibilengatik eta gero funtzionarioen aldetik. Kontrola handia da. Espetxera sartzeko, senideei miaketak egiten dizkiete, aparatu elektronikoekin eta batzuetan miaketa integralak egin nahi izaten dizkiete, hau da, biluztuarazi.

Hau guztia segurtasunaren aitzakiarekin, espetxera ezin baita boligrafo bat ere sartu, ezer ere ez!

Trabak ere jartzen dizkiete senide batzuei aurrez aurrekoak ez sartzeko. Senideek dokumentu eta paper guztiak erakutsi arren espetxeak eta epaile faxistek erabakitzen dute nortzuk diren gure senideak. Beraz, kilometro ugari egiten dituzte ezertarako, alper-alperrik, ez baitiete uzten aurrez aurrekoak sartzeko.

Eta gure kasuan ere egoera berdina da eta aurrez aurrekoak joateko miaketak egiten diz-

kigute. Jateko produktuak ordu eta erdian edo bi ordutan kontsumitu behar izaten ditugu. Espetxe barruan erosten dugu aurrez aurrekoak daramagun janaria. Eta behin aurrez aurrekoak amaitzean sobratu den janaria ezin dute senideek kaleratu eta guri ere ez digute uzten modulora bueltan ekartzeko.

Aurrez aurrekoak bukatzean berriro miaketak egiten dizkigute, aparailu elektronikoekin eta batzuetan biluztuarazi egiten gaituzte.

Hasieran aipatu dudana bezala, espetxe bakoitzak bere fun-

tzionamendua dauka eta espetxe batzuetan aurrez aurrekoak astean zehar izaten dira. Honela, senideek beraien lan postuak utzi behar izaten dituzte aurrez aurrekoetara etortzeko. Hau guztia hilabetean behin ordu eta erdi edo bi orduz bakarrik senideekin egoteko, besarkatzeko, muxukatzeo...

Eskubiderik gabe, maitasuna ukaturik, senideen bizitzak heriotz arriskuan jarriarik, useltzera kondenaturik...

Borroka da bide bakarra! Estatus Politikoa den alde! Amnistia osoa!

EKAITZ ARAMENDI ▶ IBARRA

## IBARRA ▶

Euskal tresnen  
erakusketa  
bihar ikusgai

Alurr dantza taldearen Kultur Astearen baitan, bihar euskal musika tresnen erakusketa izango da Kultur Etxean, 20:00etan, Jon Garmendia ibartarraren eskutik. Bestalde, aste osoan egongo da ikusgai 1974tik 2005era bitarteko argazkien erakusketa, Kultur Etxean.

## LEABURU-TXARAMA ▶

Podologoaren  
eta medikuaren  
bisita egunak

Podologia zerbitzua jaso ahal izateko ordua aurretik hartu beharko da ondorengo zenbakietan: 653 70 04 86 (Oroitza) eta 658 74 92 37 (Arantza). Podologoak hileko bigarren astean joan ohi dira, Leaburura asteartean eta Txaramara asteazkenean. Ezintasuna duten pertsonen zerbitzua etxean bertan jaso ahal izango dute. Bestalde, sendagilearen bisita eguna osteguna izan ohi da Leaburur, baina aurrez Ibarako anbulategian hartu behar da ordua.


**TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO**

'Zeuk idatzi'. Gure eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunek. Horretarako Zeuk idatzi atalean sartu baino ez duzu egin beharko. Anima zaituzte eta jarri denen eskura zure berria!

## LEABURU ▶ KULTURA

Udalak hainbat  
jarduera jarriko ditu  
abian hilabete honetan

Dantza, sendabelarrak, mantentze gimnastika eta batuka ikastaroak abian dira; zinema eta irteerak ere izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Leaburu-Txaramako Udalak urrian abian jarri dituen eta jartzeko asmoa duen ekitaldien berri eman du, eta aurreantzean hilero horrela egiteko asmoa azaldu du. Gainera, herriarren ideiak eta iritziak aintzat hartuko direla eta horretarako edo eta ikastaroetan izena emateko udaletxera jo edo 943 67 59 31 zenbakira hots egin beharko dela azaldu du.

**IKASTAROK**

**Euskal dantza.** Hasiak dira ikastaroekin, baina oraindik bada aukera izen emateko. Larunbatetan izango dira eskolak; helduak 10:00etatik 11:30era, eta gaztetxoak 11:30etik 12:30era.

**Mantentze gimnastika.** Gazte gelan astelehenean eta asteazkenean, 21:00etatik 22:00etara, izango dira klaseak. Aukera badago izena emateko.

**Batuka.** Modan jarri den gimnastika-dantza mota hau egiteko taldea osatu nahi dute. Astearen behin izango da, asteartean edo ostegunetan, gazte gelan, 19:00etatik 20:00etara. **Sendabelarrak eta aromaterapia.** Asteartean edo ostegunetan izango da. Inguruan ditugun landare sendagarriak erabiltzen ikasiko dute, eta baita aromaterapia ere. Gainera,



Herriko dantzariak egindako dantza saio bat. HITZA

egun bakoitzeko sendagarri bat etxera eramateko aukera izango dute. Urriaren 19an hasiko da ikastaroa, eta hilabete bateko iraupena izango du; hala ere, lutzatzeko aukera izango da. Bihar izango da izena emateko azken eguna, eta 20 euro ordaindu beharko dira.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Zinema.** Hilaren 15ean, gazte gelan, 17:00etan, oraindik zehaztu gabe dagoen haur eta gazteei zuzenduriko filma eskainiko dute.

**IRTEERAK**

**Jubilatuaren txangoa.** Hilaren 31n Bizkaira irteera antolatu dute. Autobusa Txaramatik 08:45ean aterako da, eta Lea-

burutik 09:00etan. Goizean Gernikako Azoka berezia ikus-teko aukera izango dute, eta bazkaltzera Erandiora joango dira. Animatzen denak hilaren 13a baino lehen jo beharko du udaletxera; Txaraman hilaren 11n mediku gelan egin ahaliko 17:30etik 18:30era. 21 euro ordaindu beharko dira. Jubilatuek ez direnek ere parte hartu ahal izango dute irteeran.

**KZ GUNEA**

**Ordutegia.** Udaletxe ondoan, taberna zaharra zegoen lekuan dago KZ gunea. Astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, eta ostegunetan (giltza udaletxean eskatuta), 18:00etatik 20:00etara, da ordutegia.

## IBARRA ▶

Elkartasun  
Egunaren  
harira, Mus  
Txapelketa

Euskal Herria kalean 15:30etik aurrera egingo dute, etzi; sari ugari izango dira

I. TERRADILLOS

Datorren urriaren 12an presoekiko Elkartasun Eguna izango da Ibarren. Eta horren harira, etzi Mus Txapelketa egingo dute. Euskal Herria kalean izango da, Ostaize eta Txairo tabernen artean, 15:30etik aurrera. Ibarako Zubiurre, Sendi Ekintza, Atari, Odei, Txumitxa, Arkaitz-Azpi, Ostaize, Karlitz, Danon Txokoa, Txairo, Norte eta Gaztelubide tabernetan eta Tolosako Raku tabernan egingo da izen-ematea, eta bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Txapelketako sei irabazleentzat izango diren sariak ondorengoak izango dira: bikote txapelduinak asteburu bat 4 lagunentzat Pirinioetan eta 4 txuleta irabaziko ditu, bigarren bikoteari 4 lagunentzat afaria Izaskun jatetxean egokituko zaio, hirugarrenari 4 kilo txuleta, 2 ardo botila eta gazta bat, laugarrenari 2 baserriko oilasko eta 2 ardo botila, bosgarrenari 2 baserriko oilasko, eta seigarren bikoteari 2 ardo botila.

Bestalde, hilaren 9an Ekaitz Aramendi preso ibartarrak 26 urte beteko ditu, eta hori dela-eta argazkia berari bidaltzeko bihar, 19:15ean, bilduko dira, Ibarako Kultur Etxeko atarian.

AIZKORA ▶

# Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketan dira Rekondo, Mujika eta Otaegi

Bihar iluntzean jokatuko dute finala Agurainen, Lasa, Telletxea eta Iriarterekin batera; hiruna kanaerdiko eta bina 60 ontzako ebaki beharko dituzte

JAIONE ASTIBIA

Bihar jokatuko dute Agurainen Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketako finala, 20:00etan hasita, bertako Santa Maria plazan. Sei aizkolari lehiatuko dira, eta horietatik hiru gure bi eskualdeetakoak: Jon Rekondo leitzarra, Jexux Mari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Hauekin batera izanen dira Jexux Mari Lasa legorretarra, Jon Telletxea labaindarra eta Arkaitz Iriarte urrestildarra ere. Aizkolariak egin beharreko lana honako hau da: hiruna kanaerdiko eta beste bina 60 ontzako ebakitzea. Seirak nor baino nor saiatuko dira, eta lanak azkarren bukatzen dituenak, 3. Mailako txapelaz gain, 2. Mailan aritzeko aukera eskuratuko du.

Hirza gure herrietako hiru aizkolariekin mintzatu berri da



**JON REKONDO**  
LEITZA

«Denborarik onena nirea izan zen arren, lanak estu daude orain. Ongi aritzen denak irabaziko du»


eta hirurek bat egin dute bihar-ko finala «oso lehiatua» izanen dela adierazterakoan, guztiak ere oso alde gutxiko epean



**JEXUX MARI MUJIKA**  
IBARRA

«Minutu baten barruan hiru-lau sartuko gara. Egurretan egongo da aldea, samurrenak nori egokitzen zaizkion»

sailkatu baitziren: «Denborarik onena nirea izan zen sailkapenean, baina horrek oraingo... Denak ere alde gutxiren barre-



**JOSEBA OTAEGI**  
ZIZURKIL

«Lan honetan akatsa eginez gero ez dago errekupeatzeko betarik. Zortea izaten duenak irabaziko du»

nean sartu ginen: lanak estu daude hor. Ongi aritzen denak aterako du», baieztu zuen Rekondok.

Otaegi ere iritzi beretsukoa zen. «Lan honetan akatsen bat eginez gero errekupeatzeko betarik ez dago», argitu zuen zizurkildarrak: «Lan motza da, baina azkarregi hasita, akaso, azkenera ezin ailatuz gelditu leike; eta mantsoegi hasita, berri, besteak doaz aurrera: neurria hartu eta zortea duenak irabaziko du», baieztatu zuen.

Mujikaren ustez ere oso estu ibiliko dira guztiak. «Minutu baten barruan, hiru-lau sartuko gara», zioen ibartarrak. Bere iritzi, bihar-koan, «egurretan egonen da aldea, samurrenak egokitzen zaizkiona...», azaldu zuen berak.

Bestalde, hirurek Lasaren aitamena egin zuten, txapelaren irabazle izateko eurentzat lehiakide bizkorrena modura, «jendaurrera lasai ateratzen delako eta Erasunekin ere lehiatu izan da eta», zehaztu zuen Mujikak. Rekondok, bere aldetik, Lasaz gain Mujika bera ere «bertatik zaintzekoa» dela iritzi zion; eta Otaegik, «Rekondo eta Telletxea, eta Lasaren artean egonen da joko» nabarmendu zuen.

Rekondok 20 urtez behiko Banakako Urrezko Aizkora irabazi du aurtan, bera izanen da gazteena; Otaegik, Iriarterekin batera (hau ere bihar-koan hor izanen da), Binakako Gazteen Urrezko Aizkora. Ikuskizuna ziurtatua dagoela bistakoa da.

ARESO ▶ KIROLAK

## Aresoko ordezkariak parte hartuko du Euskal Herrialdeetako Txapelketan

Goma gaineko sokatiran lehiatuko da Sukuntza, Beti Gazterekin

J. ASTIBIA

Etzi jokatuko da Euskal Herrialdeetako Kirol Txapelketa, Getxon. Eta, besteak beste, sokatiran ere ariko dira lehian, goma gainekoan kasu honetan. Bada, hantxe ariko da Areso sokatira taldeko kide den Migel Angel Sukuntza tiratzailea, Lesakako Beti Gazte taldearekin batera. Aurtengoan talde honi egokitu zaien Nafarroaren ordezkari izatea eta txapelketa hauetan. Halaxe jakinarazi dute taldeko kideek.

Kontuak kontu, txapelketa honetan sokatiraz gain, beste hainbat kirolerako lehia ikusgai izanen da, guztiak herri kirolak, eta bakoitzean Euskal Herriko herrialde bakoitzeko talde ordezkari banarekin,



Migel Angel Sukuntza. J. A.

aurtengo edizioan Zuberoako ordezkariak ez omen da izanen, baina.

Horrela, bada, hamar kirol desberdinetan ariko dira lanean, 17:00etan hasi eta iluntzea

ongi sartu artean, aspertzeko betarik izan gabe: soka tira, soksor-bilketa, ingudea, lasto altzatzea, orga-jokoa, txingak, trontza, zakulariak, aizkora, hari jasotzaileak. 10 kirol desberdin, 6 herrialde, txandak txandaka, Getxoko Andra Mari probalekuan ariko direnak.

Antolatzaileek nabarmendu nahi izan dutenez, bestalde, txapelketa bukatutakoan, «emakumezkoen erakustaldia» izanen omen da, alegia, «kirol hauetan guztietan oraindik talde osoak osatzeko adina emakumezko parte-hartzaile ez badago ere, eurek ere erakustaldiak eginen dituzte, norbanako gisa, hainbat kirolertan», zehaztu zuten.

Ondoren garaikur eta sari banaketa eginen dute.

LEITZA ▶ GIZARTEA



## Kuintxo ez baina, erraldoia

J. Astibia ▶ Kalabazina edo kuintxoarekin omen deritza honako barazki honi. Baina, nago, kasu honetan tikitik ez duela deus ere, irudian ageri den honek, aurkakoa hobe doakiola eta *kuintzarr*a galanta dela: leitzar honek etxeko hazitiki egindako landarea izanik atzo bildu zuen bere baratzen 35 kiloko pisua egin zuen ale hau. JAIONE ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Saltzailea.** Emakume saltzaile bat behar da Tolosako denda baterako. Astelehenerdik larunbatera,

arratsaldez. Interesatuak bidal dezatela curriculum vitae-a eta argazkia Tolosako 279 posta [kubara](#).



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 6a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Belautza.** Gripearen aurkako txertoa, 09:00etan.  
**Elduain.** Gripearen aurkako txertoa, 12:30ean. Egun horretan ezin dutenek egunero dute Ibarra, Berastegin eta Lizartzan erizainaren kontsultan txertoa hartzeko aukera, beti ere alde zuretik ordua eskatuz (943 67 24 11, Ibarra).

**Leitza.** Hilaren 20an Lodosara irteera antolatu du Arkupeak jubilatutako elkarrekin. Piperraren inguruko lanak ikusi eta ondoren bazkaria izango dute Lizarran. Izen-ematea 15a bitarte egin daiteke elkartean, 25 eurotan.

**Tolosaldea.** Autobusa antolatu dute hilaren 23an Arantzazura joateko. Asteasutik abiatuko da 09:00etan, eta Irura-Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa ibilbidea osatuko du Arantzazura joan aurretik. Itzulera, berriz, 19:00ak aldera izango da. Joan nahi duenak lehenbailehen eman behar du izena 943 65 27 00an (Aranbxa).

ERAKUSKETA

**Ibarra.** 1974 eta 2005 arteko argazkien erakusketa. Aste osoan ikusgai, Kultur Etxean. Alurr dantza taldearen Kultur Astearen baitan.

**Tolosa.** Ipuinartean I egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

**Tolosa.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5 eta 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; HITZaren errepasoa, oharrak, agenda, elkarrizketak, albisteak... 13:00etan, Ezkutuko koloreak irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainien tartea.  
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa saioaren errepikapena.  
22:00-23:00. Gau bero musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

# Paperezko altxorak

## TOLOALDEA ETA LEITZALDEA ▶ 2.000 egunkariaren bilduma du Jose Miguel Rodriguez kataluniarrak, eta tartean da ere Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA

LEIRE MONTES

**E**gunkariaren eta astekariaren bilduma egiten dut duela 27 urtetik, eta zuen egunkariaren ale batzuk izatea ere gustatuko litzaidake. Hala zioen Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN posta elektronikokoan jasotako mezu batek. Harriduraz, pozez eta jakinminaz, Juan Miguel Rodriguezekin, mezua bidaltzailearekin, harremanetan jarri ginen. Haren afizioaren berri gehiago jakitea lortu genuen, hala. Eta, aste honetan, argazki batzuk bidali dizkigu; bera eta bildumaren ale batzuk ageri dira bertan, guk igorritakoak tartean.

Jose Miguel Rodriguez Hospitalet-eko (Katalunia) da, eta 43 urte ditu. Duela 27 urte ekin zion bildumak egiteari, baina behin baino gehiagotan atzera egin duela azaldu dio HITZARI: «Leku faltagatik ehunka egunkari bota nituen behin, beste batzuetan mantxeta moztu eta kazeta bera bota egin izan dut, edo lehendabiziko eta azkeneko orria soilik gorde... Baina oso damututa nago. Eta azkeneko lau urteotan tinko eutsi diot nire asmoari». Denera, bi mila ale inguru ditu jasota.

Aro guztietakoak dira, baina batez ere berriak, «egunkari zaharrak gero eta garestiagoak daude eta». %99 erosi egin ditu, baina badira posta arruntaz edo posta elektronikoz eskatutako aleak bidali dizkieten ere: «100 gutunetik gora bidali ditut, eta 12 lagunek soilik erantzun didate. Zuek, zorionez, horietakoak zarete!».

Tokian tokiko prentsa du bereziki gustukoan Rodriguezek:



Jose Miguel Rodriguez, osatutako bildumaren ale batzuekin, eta HITZarena eskuan duela. J. M. RODRIGUEZ



Txoko guztietako egunkariak bildu ditu kataluniarrak. J. M. RODRIGUEZ

«Oso egokia iruditzen zait HITZAN egiten duzuen, hau da, egunkariak eskualdeen arabera banatzea. Izan ere, ia denek dakigu Bush-i zer gertatzen zaion, eta gure seme-alaben ikastetxean pasatzen denari buruz ezer gutxi, aldi. Tokian tokiko egunkariak dira zailenak lortzen, baina gehiago asetzen naute, gertuko harremanak lotzen baitituz».

«Bartzelonan 80 hamarkadaren aurretik agertzen hasi ziren probintzietako egunkariak» hasi zen bilduma osatzen, eta orain oporretan edo irteeraren baten egiten duenean erosten ditu. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN berri, berriz, Interneten aurkitu zuen.

AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Ane Peña Olazabal. Gaur 5 urte. Zorionak etxekoan eta, bereziki, Jon Ander eta Loinazzen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Zorionak eta ondo igaro zuen eguna. Etxekoan partetik. Larunbatean ikusiko gara...meriendan...

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAREN egoizetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!